DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko uztailaren 7an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, *aho batez*:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 7 de julio de 2024, aprobó, *por unanimidad*, la siguiente Declaración Institucional:

**Erakunde Adierazpena, udal talde guztiek aurkeztua, LGTBI+ harrotasunaren nazioarteko eguna dela eta.**

**Declaración Institucional, presentada por todos los Grupos Municipales, con motivo del Día Interlacional del orgullo LGTBI+.**

*"Ekainaren 28an, LGTBI+ kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean, aniztasunetik, eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, eta kolektibo honen eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatzen ditugu. Halaber, egun hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogorarazteko ere bada.*

*Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu sexuaskapenaren aldeko borrokaren alde ahaleginak batu dituzten pertsona, erakunde eta instituzio guztiei. Bere dedikazioari, konpromisoari eta ausardiari esker, gaur lorpen garrantzitsuak ospa ditzakegu giza eskubideen eta eskubide sozialen arloan. Pertsona horiek, beren eguneroko lanarekin, funtsezko zutabea izaten jarraitzen dute gizartea sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eraldatzeko, eta ingurune inklusiboagoa eta errespetuzkoagoa sortzen laguntzen dute.*

*Hala ere, pertsona guztien berdintasunean aurrerapen ukaezinak egin diren arren, oraindik diskurtso LGTBIfobikoen albiste kezkagarriak iristen dira, lortutako lorpenetan atzerakada bat dakartenak. Diskurtso horiek, gehienetan*

*"Este 28 de junio, en el Día Internacional por la Liberación Sexual y el Orgullo del Colectivo LGTBI+, reafirmamos nuestro compromiso con los derechos y la convivencia desde la diversidad, celebrando los avances logrados en el reconocimiento de los derechos y libertades de este colectivo. Esta jornada no solo es una celebración, sino también un recordatorio del camino recorrido y del trabajo que aun queda por hacer para alcanzar una verdadera igualdad.*

*Queremos expresar nuestro mas sincero agradecimiento a todas las personas, organizaciones e instituciones que han unido esfuerzos en favor de la lucha por la liberación sexual. Gracias a su dedicación, compromiso y valentía, hoy podemos celebrar importantes logros en materia de derechos humanos y sociales. Estas personas, con su labor diaria, continúan siendo un pilar fundamental en la sensibilización, concienciación y transformación social, contribuyendo a crear un entorno mas inclusivo y respetuoso.*

*No obstante, a pesar de los innegables progresos en la igualdad de todas las personas, todavía surgen noticias inquietantes con discursos LGTBIfóbicos que representan un retroceso en los logros alcanzados. Estos discursos, muchas veces*

10740n XVII

*ezjakintasunetik eta gorrototik eratorriak, lortutako aurrerapenak desagerraraztea eta diskriminazioa iraunaraztea bilatzen dute. Beraz, funtsezkoa da gizarte gisa erne eta tinko egotea eskuratutako eskubideen defentsaren alde; hala, sexu- eta genero-aniztasunarekiko duintasuna eta errespetua kaltetzeko edozein ahalegin baztertuko dugu.*

*alimentados por la ignorancia y el odio, buscan minar los avances conseguidos y perpetuar la discriminación. Es crucial que como sociedad nos mantengamos vigilantes y firmes en la defensa de los derechos adquiridos, rechazando cualquier intento de menoscabar la dignidad y el respeto hacia la diversidad sexual y de genero.*

*Sexu- eta genero-aniztasunaren ikusgarritasunak gizarte gisa aurrera egiteko aukera ematen digu. Aniztasun hori aitortzea eta ospatzea, justiziaekintza izateaz gain, komunitate gisa aberasteko aukera ere bada. Ez dugu inolako atzerapausorik onartuko kolektibo osoko ehunka lagunen ahaleginari esker lortutako eskubideetan. Irabazitako eskubide bakoitza gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baterako urratsa da.*

*La visibilidad de la diversidad sexual y de genero nos permite avanzar como sociedad. Reconocer y celebrar esta diversidad no solo es un acto de justicia, sino también una oportunidad para enriquecernos como comunidad. No permitiremos ningún retroceso en los derechos conquistados gracias al esfuerzo de cientos de personas de todo el colectivo. Cada derecho ganado es un paso hacia una sociedad mas equitativa y humana.*

*Horregatik guztiagatik, ekainaren 28ak are garrantzi handiagoa hartu du. Donostia Udalatik herritarrak ekintzetan parte hartzera animatzen jarraitzen dugu, gorroto-diskurtsoak eta giza eskubideen urraketak irmo salatzeko. Funtsezkoa da guztiok injustiziaren aurka ozen mintzatzea, eta elkarrekin lan egitea diskriminazio mota oro desagerrarazteko. Ekintza kolektiboaren bidez bakarrik lortu dezakegu benetako aldaketa iraunkorra.*

*Es por ello que este 28 de junio cobra una importancia aun mayor. Desde el Ayuntamiento de San Sebastian seguimos animando a la población a actuar y a denunciar con firmeza los discursos de odio y las violaciones de los derechos humanos. Es fundamental que todos y todas alcemos la voz contra la injusticia y trabajemos de manera conjunta para erradicar cualquier forma de discriminación. Solo a través de la acción colectiva podemos lograr un cambio real y duradero.*

*Badakigu sexu- eta genero-aniztasunaren onarpen soziala gero eta handiagoa dela, neurri batean euskal gizarte osoaren elkarlanari esker. Lan hori funtsezkoa izan da armairurik gabe, loturarik gabe, aurreiritzirik gabe eta estigmarik gabe bizi ahal izateko, eta komunitatea eraikitzeko. Babes keinu bakoitzak, ikusarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeko gure erabakia berresten laguntzen du.*

*Somos conscientes de que la aceptación social de la diversidad sexual y de genero es cada vez mayor, gracias en parte al trabajo conjunto de toda la sociedad vasca. Esta labor ha sido fundamental para construir una comunidad donde podamos vivir sin armarios ni ataduras, libres de prejuicios y estigmas. Cada gesto de apoyo, cada acto de visibilización, contribuye a fortalecer este movimiento y a reafirmar nuestra determinación de seguir adelante.*

*Horrenbestez, sentsibilizazio eta aldarrikapenekitaldiekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu: leihoetatik eta balkoietatik kolore anitzeko banderak zintzilikatu. Keinu txiki baina esanguratsu hori elkartasunaren eta babesaren erakusgarri da, eta agerian uzten du gaur aniztasunaren aldeko borroka eguna dela. Astintzen dagoen bandera bakoitza erresistentziaren eta itxaropenaren sinboloa da, atzera egiteko prest ez gaudela dioen adierazpena, hain zuzen.*

*Por eso, invitamos a todas las personas que se unan a los actos de sensibilización y reivindicación, colgando de sus ventanas y balcones banderas multicolor. Este pequeño pero significativo gesto es una muestra de solidaridad y apoyo, y visibiliza que hoy es un día de lucha por la diversidad. Cada bandera ondeando es un símbolo de resistencia y esperanza, una declaración de que no estamos dispuestas a retroceder.*

*Gogorarazi nahi dugu LGTBI+ eskubideen aldeko borroka guztion borroka dela. Ezin dugu onartu Queremos recordar que la lucha por los derechos LGTBI+ es una lucha de todos y todas. No podemos gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizun bat eraikitzeko.*

*Queremos recordar que la lucha por los derechos LGTBI+ es una lucha de todos y todas. No podemos permitir que el odio y la intolerancia prevalezcan. Hoy, mas que nunca, debemos unirnos en nuestra diversidad, celebrando y trabajando de manera conjunta por un futuro en el que todas las personas podamos vivir con dignidad, respeto y libertad.*

*Hori dela eta, erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu:*

*Es por ello que presentamos la siguiente Declaración Institucional:*

*1. Donostiako Udalak bat egiten du erabateko berdintasunerako, duintasunerako eta sexu- edo genero-identitatearen garapen askerako eskubidearen defentsa garbian.*

*1. El Ayuntamiento de San Sebastian se suma en la defensa nítida del derecho a la plena igualdad, a la dignidad y al libre desarrollo de la identidad sexual y/o de genero.*

*2. Donostiako Udalak gogorarazten du gizakiok aske jaiotzen garela, duintasun eta eskubide berberekin, inolako bereizketarik gabe. LGTBI+ eskubideak giza eskubideak dira eta izango dira beti.*

*2. El Ayuntamiento de San Sebastian recuerda que los seres humanos nacemos libres e iguales en dignidad y derechos sin distinción alguna. Los derechos LGTBI+ son y seran siempre derechos humanos.*

*3. Donostiako Udalak balioa ematen die LGTBI+pertsonen eskubideak aitortzearen alde lan egin duten erakunde eta pertsonei.*

*3. El Ayuntamiento de San Sebastian pone en valor a las organizaciones y personas que han trabajado por el reconocimiento de los derechos de las personas LGTBI+.*

*4. Donostiako Udalak adierazten du gizartea kontzientziatzen lagunduko duten jarrerak etapolitikak sustatzen jarraituko duela, benetako pentsamolde-aldaketa bat gerta dadin eta jarrera LGTBIfobikoak desagerrarazi eta gaitzetsi daitezen.*

*4. El Ayuntamiento de San Sebastian muestra su compromiso de continuar en la promoción de actitudes y políticas que favorezcan la concienciación social para un efectivo cambio de mentalidad que erradique las actitudes LGTBIfóbicas y el rechazo a las mismas.*

*5. Donostiako Udalak uste du beharrezkoa dela adostasun zabalak lortu eta ehuntzea, beharrezko neurriak —legegintzakoak, administraziokoak eta bestelakoak— har daitezen, Administrazioaren edozein mailatan sexu-orientazioan edo generoidentitatean oinarritutako tratu diskriminatzailea debekatu eta ezabatzeko eta, horrela, indarrean dagoen legeria hobetzeko.*

*5. El Ayuntamiento de San Sebastian cree necesario tejer y conseguir amplios consensos para que se adopten las medidas necesarias, tanto legislativas como administrativas y de otra índole, para prohibir y eliminar el trato discriminatorio basado en la orientación sexual o la identidad de genero en cualquier nivel de la Administración y mejorar así la legislación vigente.*

*6. Donostiako Udala bereziki kezkatuta dago nazioartean dokumentatutako kasu ugariengatik;izan ere, kasu horiek agerian uzten dute, gaur egunere, herrialde batzuetan,*

*6. El Ayuntamiento de San Sebastian manifiesta su especial preocupación por los múltiples casos documentados internacionalmente que ponen de manifiesto, aun hoy, la criminalización en algunos*

*homosexualitatea eta transexualitatea kriminalizatu egiten direla,eskubideak kentzen direla eta lege-diskriminazioa dagoela, eta krimen horiek ez direla zigortzen.*

*países de la homosexualidad y transexualidad, privación de derechos y discriminación legal, así como la impunidad de estos crímenes.*

*7. Donostiako Udalak dei egiten die herritarrei LGTBI+ mugimenduek eta mugimendu feministek gure herri eta hirietan egiten dituzten ekintzetan parte har dezaten eta bat egin dezaten foro publikoek, komunikabideek eta sare sozialek gaur aniztasunaren aldeko borrokaren eguna dela ikusarazteko egiten dituzten sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldiekin". =============*

*7. El Ayuntamiento de San Sebastian hace un llamamiento a la población para participar en las acciones que sean convocadas por los movimientos LGTBI+ y feministas en nuestros pueblos y ciudades, así como a sumarse a los actos de sensibilización y reivindicación que, desde los foros públicos, los medios de comunicación y redes sociales, hagan visible que hoy es un día de lucha por la diversidad". ==============================*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (23/07/2024 08:30 CEST), Eneko Goia Laso (23/07/2024 11:58 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : L2NN-6U2Q-9SW4-K5RD